

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Hirigintza eta Garapen Iraunkorreko Arloa

*Iragarkia*

2019ko urriaren 25ean Alkatetza-Lehendakaritza honek honako 1413 zenbakiko erabaki hau hartu zuen:

1. Behin-betiko onartzea 4.2.04: Recondo-lparralde esparruaren Gauzate Unitateko Urbanizazio Proiektua, atxikitzen den eranskinean jasotzen diren baldintzak betetzekotan.

2. Erabaki hau irmoa da administrazio bidetik. Beraren aurka, aukerara, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auziaren aurretik, hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo zuzenean aurkaratu Donostiako administrazioarekiko auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta; hori guztia, egoki iritzitako beste edozein aurkeztetik aparte».

Irun, 2019ko azaroaren 4a.—Alkatea, eskuordetuta, Hirigintza eta Garapen Iraunkorrako Administrazio Unitateko burua.

(7000)

ERANSKINA

I. Abalak gordailutuko dira obrak hasi aurretik.

Ondoko abalak gordailutu beharko dira. Hona zenbatekoak:

— 70.072,70 €, urbanizatzeko obrak behar bezala egikaritzeko berme gisa (Kontrataren aurrekontuaren % 6), eremuaren hegoaldeko kanpoko ertza zeharkatzen duen tentsio altuko linea lurperatzeko tasak sartzen dira. Urbanizazio obrei harrera egiten zaienean itzuliko da.

— 2.115,34 euro (1.762,78 euroren % 120, Exekuzio Materialaren Aurrekontua - Hondakinen Kudeaketaren Azterketa), eraikitze eta eraisteko lanetan sortzen diren hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatzeko.

Lanak bukatutakoan itzuliko da. Horretarako, hondakinen kudeaketari buruzko amaierako txostena eta lanak egiterakoan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direlako egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren 112/2012 eta 407/2013 dekretuekin bat etorriz; horrela, dagokion elkargo ofizialak edo entitate akreditatuak txostena (zuzendaritza fakultatiboa) egiaztatu beharko du, salbu eta lur kutsatuen esparruan akreditazioa duen entitate batek egiten badu txostena.

— 30.000 €, eremuaren barnean nahiz kanpoan obrek ukitutako bide, ondasun eta zerbitzu publikoak behar bezala mantentzeko. Urbanizazio obrei harrera egiten zaienean itzuliko da.

— 22.825 €, lorezaintzarako aurrekontu-sailaren kopuru bera, zuhaitzen landaketarekin bete egin dela eta ingurumena zein paisaia leheneratu egin direla bermatzeko, kopuru bereko abal bat gordailutuko da.

Bermea itzuliko da betebeharra egiazki bete dela egiaztatzen denean. Horrela, obren harrera egiteko datan ez bada bete landaketarekin, bai landaketa egiteko garaia egokia ez izateagatik, landatutako zuhaitzen kopurua eskasa izateagatik, hil egitea-

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible

*Anuncio*

Con fecha 25 de octubre de 2019 por la Alcaldía Presidencia, se ha dictado la siguiente Resolución n.º 1413:

1.º Aprobar definitivamente el Proyecto de Urbanización de la Unidad de ejecución del ámbito 4.2.04: Recondo-lparralde con sujeción a las condiciones recogidas en anexo adjunto.

2.º La presente resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno».

Irun, a 4 de noviembre de 2019.—El alcalde, p.d., la jefa de la Unidad Admva. de Urbanismo y Desarrollo Sostenible.

(7000)

ANEXO

I. Depósito de avales, previo al inicio de las obras.

Deberá depositar los siguientes avales, por importes de:

— 70.072,70 €, en garantía de la correcta ejecución de las obras de urbanización (6 % PC), incluye las tareas del soterramiento de la línea de alta tensión que cruza el borde exterior del sur del ámbito. Será devuelto con la recepción de las obras de urbanización.

— 2.115,34 € (120 % de 1.762,78 € PEM EGR), en garantía de la correcta gestión de residuos de construcción y demolición.

Se devolverá a la finalización de los trabajos. A tal fin, se presentará el Informe final de la gestión de residuos y la acreditación documental de la correcta gestión de residuos generados en la obra de acuerdo a los Decretos 112/2012 y 407/2013 del Gobierno Vasco; de modo que el Informe (dirección facultativa) deberá estar verificado por Colegio Oficial o entidad acreditada para dicho cometido, salvo que dicho informe sea elaborado por entidades acreditadas en materia de suelos contaminados.

— 30.000 €, en garantía del correcto mantenimiento de viales, bienes y servicios públicos dentro y fuera del ámbito, afectados por el desarrollo las obras. Será devuelto con la recepción de las obras de urbanización.

— 22.825 €, misma cantidad que la partida presupuesta para jardinería, en garantía del cumplimiento de plantación del arbolado y de restauración ambiental y paisajística, se depositará un aval por idéntica cantidad.

Se devolverá una vez comprobado el efectivo cumplimiento de la obligación. Así, en el caso de que a la fecha de la recepción de las obras de urbanización no se haya cumplido con la plantación, bien por un déficit en el número de árboles planta-

gatik edo beste edozein arrazoiengatik, aurreko epigrafean aitpatutako betetzearen berme gisa gordailututako bermea gauzatu da eta ez da itzuliko.

II. Obraren egitasmoaren baimenak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldetik, bera baita eremuaren inguruko errepideetan eskumena duen administrazio publikoa. Obraren ondoriozko afekzioak direla eta, ibilgailuen trafikoaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoa den hizketakidea da (aireko linea lurperatzea, Suhiltzaileentzako maniobra gunerako sarrera, saihebidetaren biaduktuaren azpiko kanalizazioak, 2 Transformazio Zentro egikaritzea, zortasun eremuan, obrarekin lotutako garraio-ibilgailuen trafikoa, desbideratzeak/trafiko mozteak, seinaleztapena,...).

III. Irungo Udaleko Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra arloari jakinarazi egin beharko zaio obraren hasiera; izan ere, arlo hori arduratuko da obraren jarraipena egiteaz eta urbanizazio-obretarako udal irizpideak ezartzeaz, gero obra horien harrera egiteko.

IV. Obrak egikaritu bitartean bete beharreko baldintzak:

– Baldintza Tekniko Orokorrek bete beharko dira urbanizazio-obrak egiteko Irungo udal barrutian. Era berean, enpresa hornitzaileen arauak beteko dira zerbitzuen azpiegituretan.

Bereziki, hornikuntza eta saneamendu azpiegiturak egitekoan Txingudiko Zerbitzuen irizpideak jarraitu beharko dira une orotan, eta sare osoan kalitatearen kontrolerako probak egingo dira, hala nola barne presioa, hermetikotasuna, hoditerien garbitasuna eta desinfekzioa eta kamera bidezko ikuska-pena.

– Perimetrotako errepideen ibilgailuentzako galtzaden egungo kokapena ukitu gabe mantenduko da, zintarriak eta arekak barne. Bakarrik puntualki leheneratuko da zintarria/areka bizi-tegi lursail pribatuaren barrura daramaten ibilgailuentzako bi sarbideetan (Suhiltzaileen maniobra gunearen atzeko aldearen eta blokeko garaje gunearen sarrera).

– Ezohiko neurrien protokolo bat ere izango da zirkulazio erreiek gorabeheraren baten eraginpean geratzen badira obra egin bitartean.

– Ziurtatu egin beharko da inolako azpiegitura, obra zibil edo transformazio-zentrorik ez dela egongo edo igaroko arbolaren azpitik.

Gune berdea itxi egingo da Iparralde hiribiderako sarreran heskaiaz edo hesiaz, eta hiriko parkeetako eta lorategietako mantentze-lanetarako zerbitzuek kontrolpeko pasabide bat egokituko dute, herritarrek ez erabiltzekoa. Horrekin, puntu beltzak sortzea ekiditea da asmoa.

– Transformazio Zentro bikoitz bat ezarriko da (2 transformadorekin), hau da, bi Transformazio Zentro ez, eta tentsio altuko hargunea Iparralde hiribideko beste aldetik egiten dela kontuan hartuz, transformadore bikoitza bizitegi egoitzatik urrun jarriko da, gune berean, Kostorbealde kalearen eta GI-636 saihebidetaren artean. Hargune elektrikoa Iberdrolak adierazitako lotzeko puntutik transformazio zentro berriraino beharrezkoa da eraikin berriari zerbitzua emateko. Lur azpikoa izango da eta lur publikotik joango da, kanalizazio berri batez. Adierazitako lotzeko puntu horretatik, Kostorbealde kalea zeharkatuko du Transformazio Zentroa kokatu ondoren. Energia elektrikoa hornitzen duen enpresaren hornidura baldintzei buruz adierazten duenaren arabera doituko da.

– Argiteriaren kanalizazio berriak dauden alboetako kanalizazioetara lotuta geratuko dira; horretarako, galtzada zeharkatuko da espaloi berritik Kostorbealde kaleko kale-argirik hurbilenera. Argiteria sare berriari, kanalizazioak buxatu behar dira kutxiletan, poliuretanozko aparraz, eta hoditeri guztiek gidak eduki behar dituzte.

dos, o bien por la muerte, por cualquier causa durante el periodo de garantía, de los árboles plantados, o bien porque no es la época del año propicia para esas labores de plantación... el depósito de garantía del cumplimiento mencionado se hará efectivo y no se devolverá.

II. Autorizaciones a la obra pretendida por parte del Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, administración pública competente en los viarios que rodean el ámbito. Es el interlocutor necesario para garantizar la seguridad del tráfico rodado por las afecciones derivadas de la obra (soterramiento línea eléctrica aérea, acceso espacio maniobra Bomberos, canalizaciones bajo viaducto variante, ejecución de 2 CTs en zona de servidumbre, tráfico de vehículos del transporte vinculado a la obra..., desvíos/cortes de tráfico, señalizaciones,...).

III. Comunicación de la fecha de inicio al Área de Movilidad, Vía Pública y Obras del Ayuntamiento de Irún, que se encargará de realizar un seguimiento de la obra y marcar los criterios municipales en las obras de urbanización, para la posterior recepción de las mismas.

IV. Condicionantes durante la ejecución de las obras:

– El cumplimiento de las Condiciones Técnicas Generales para las obras de urbanización en el término municipal de Irún. Asimismo, en las infraestructuras de los distintos servicios, se deberán cumplir las normas de las empresas suministradoras.

Especialmente, en la ejecución de las infraestructuras de abastecimiento y saneamiento, se deberán seguir en todo momento los criterios de Servicios de Txingudi, y se realizarán en la totalidad de la red pruebas de control de calidad como pruebas de presión interior, estanqueidad, limpieza y desinfección de las tuberías e inspección con cámaras.

– La obra mantendrá intacta la disposición actual de las calzadas rodadas de los viales perimetrales, incluyendo bordillos y cunetas. Sólo puntualmente repondrá el bordillo/cuenta en los dos puntos de acceso rodado al interior de la parcela residencial privada (entrada espacio trasero de maniobras de Bomberos y al vaso de garajes del bloque).

– Existirá un protocolo de medidas extraordinarias en caso en que se vean afectados carriles de circulación por un incidente imprevisto durante el transcurso de la obra.

– Ninguna infraestructura, obra civil o centro de transformación se situará o discurrirá bajo los árboles.

La zona verde se cerrará en su punto de acceso con la Avenida Iparralde con un seto vegetal o valla, habilitando un paso controlado por los servicios de mantenimiento urbano (parques y jardines) pero no por la ciudadanía en general. Con ello, se pretende evitar la creación de puntos negros.

– Se colocará un centro de transformación doble (con 2 transformadores), no dos CTs y, teniendo en cuenta que la acometida de alta tensión se produce desde el otro lado de la Avda. Iparralde, se colocará el transformador doble alejado del edificio residencial, en la zona verde entre la calle Kostorbealde y la variante GI-636. La acometida eléctrica desde el punto de enganche señalado por Iberdrola al nuevo centro de transformación necesarios para dar servicio a la nueva edificación, será soterrada y discurrirá por suelo público mediante una canalización nueva que, partiendo desde el punto de enganche señalado, cruce la calle Kostorbealde después de ubicar el CT. Se ajustará a lo señalado por la empresa suministradora de energía eléctrica en sus condiciones de suministro.

– Las nuevas canalizaciones de alumbrado quedarán conectadas a las canalizaciones adyacentes existentes, mediante un cruce de calzada desde la nueva acera a la farola más cercana en la calle Kostorbealde. En esa nueva red de alumbrado las canalizaciones quedarán taponadas en las arquetas con espuma de poliuretano y todas las conducciones dispondrán de guías.

– Argiteria instalazioko kable sekzioak zehaztu eta justifikatu behar dira instalazioa egin aurretik. Argiteria publikoaren sareko kablearen gutxieneko sekzioa  $4 \times 6 \text{ mm}^2$ -koa izango da.

– Argiteria publikoa instalatzeko, argiteria koadro berri bat sortu behar da. Koadro berri honi lotuko zaizkio egun dauden lineak eta proiektatzen diren berriak, eta gainera edukiera izan behar du etorkizunean egin litezkeen handitzeetarako ere. Argiztapen koadro berriak Cirprotec VCheck 4RC gaintentsioen kontrako gailu bat edo gailu baliokide bat izan behar du, eta diferentzialek berrarmagarriak izan behar dute.

– Hiri-ingurune barruko obra denez, non egin beharreko lur-mugimendua oso garrantzitsua den, batez ere hondeaketa eta kanpotik obrarako lur-ekarpena, arreta berezia eduki behar da bideak garbi edukitzeko.

– Se deben definir y justificar las secciones de cable de la instalación de alumbrado previamente a su instalación. La sección mínima de cable de la red de alumbrado público deberá ser de  $4 \times 6 \text{ mm}^2$ .

– La instalación de alumbrado público comporta la creación de un nuevo cuadro de alumbrado. A este nuevo cuadro se conectarán las líneas existentes y las nuevas que se ejecuten, debiendo tener además capacidad para futuras ampliaciones. Ese nuevo cuadro de alumbrado dispondrá de un dispositivo de sobretensiones VCheck 4RC de Cirprotec o equivalente y sus diferenciales serán rearmables.

– Al tratarse de una obra dentro de un entorno urbano en el que el movimiento de tierras que se debe realizar es importante, sobre todo la excavación y transporte de tierras de fuera a la obra, se deberá tener especial cuidado en mantener limpios los viales.